

# ANIZTASUNAREN TRATAERA

## EAetik egindako hausnarketak

### 1.- Aniztasunaren kontzeptua eta eremuak.

Hezkuntzan, pertsonen edo, zehatzago esateko, ikasleen arteko diferentziei deritzogu aniztasuna eta aniztasun hori barnekoa ala kanpokoia izan daiteke. Dena dela, hezkuntzan, aniztasuna aberasgarria da, bai pertsonari, bai taldeko integrazioari begira. Bestalde, aniztasunari esker, pertsonen erruduntasuna baztertu eta hezkuntza sistemak eskaintzen dituen aukera guztiak erakutsiko ditugu. Guztiok gara desberdinak eta hezkuntza sistemak aintzat hartu behar ditu aniztasun horiek; izan ere, bereizkeria edo eragozpenerako bide bihurtu beharrean, pertsona ororen gaitasunak erabat garatzeko aukera eman behar digute.

Aniztasuna hainbat eremutan ematen da. Eskolan, lau eremu handitan agertzen da:

- genero aniztasuna,
- gizarte eta ekonomiako aniztasuna,
- kultur aniztasuna eta
- gaitasun pertsonalen aniztasuna.

Elkarren artean lotuta dauden eremu horiek modu askotara azaltzen dira. Besteak beste, aipatzekoak dira ondoko eremuetako aniztasunak: garapen ebolutiboa, lanbide eta akademia alorreko interesak, igurikapenak, bitzta-proiektuak, ikasketa ereduak, komunikazio harremanak, autonomia eta autokontzeptua, garapen kognitiboa, eskolatzeko motak, ikasketa prozedura eta estrategiak, gizarte abilezien garapena eta abar.

Arreta berezia zor zaie ondoko ikasleei: ezgaitasun fisiko, psikiko eta sentsorialak, gaitasun handiak eta gizarte arazoan ondoriozko zailtasun bereziak dituztenei (gune behartsuetakoak, gutxiengo etnikoak, etorkinak edo jarrera disruptiboak dituztenak).

DBHko ikastetxeetan, aniztasunari loturiko beste alderdi espezifiko bat daukagu, ezin bazter dezakeguna. Eskolatu nahi ez duten ikasleek ari gara. Arrazoi bategatik ala besteagatik ez dute ikasterik nahi eta, gainera, gogor eusten diete jarrera horri. Halakoetan, DBHko ikastetxeetako irakasleek ez dute asmatzen zer egin, ezta ikasle horien gurasoek ere. Arazo larria da eta, seguruenik, ez du irtenbide magikorik izango, baina ezin dugu inola ere baztertu.

## **2.- Hezkuntzak nola erantzuten dion aniztasunari.**

Eskolak aniztasunari erantzun behar dio eta, horretarako, hainbat tresna ditu legerian. 1981az geroztik, euskal hezkuntza-sistemak eskola integrazioaren bidez egin dio aurre aniztasunari. Printzipio hori Espainiako hezkuntza sistema osora hedatu zen, LOGSEren bidez. Aipagarria da derrigorrezko hezkuntza, hamasei urtera arte aplikatzen baita.

### ***2.1.- “Ikastetxea” aniztasunari begira:***

Ikastetxeak, erakunde den aldetik, aniztasunari erantzuteko eremua behar du izan. Ahalik eta eremurik normalizatuenetan integratu behar du aniztasuna, ikasleen gaitasunak ahal beste garatzeko; horrela, guztiek izango dituzte aukera berdinak hezkuntzako prozesu eta emaitzetan eta ikasketak hautatzean.

Ikastetxeak ondokoak zehaztu behar ditu, bere autonomiaren arabera:

- ikastetxearen planteamendua, aniztasuna kontuan izanik;
- funtzionamendu araudiak definitzea, aniztasuna kontuan hartuz eta baloratuz;
- hezkuntza etapak antolaketa unitate autonomo moduan konfiguratzeko, aniztasunari erantzuteko;
- zuzendaritzak ikastetxeko estamentu guztientzako baloreen sistema bateratu behar du, baita aniztasuna onartzen duen proiektua diseinatu ere;
- elkarbizitzarako marko argi eta adostua ezartzea eta jarrera onargarriak eta ez onargarriak zehaztea;
- eremu fisiko atsegina finkatzea, non aniztasunak aberasgarri baitira;
- jarrera irizpide erkideak tutore eta irakasleentzat;
- orientazio akademikoa eskaintzen eta tutoreen ekintza sustatzen duen markoa;
- ikastetxeko estamentu bakoitzean eta estamentu guztien artean harreman konstruktiboak ahalbidetzen dituen antolamendu orokorra;
- giza harremanei datzekien gatazkak konpontzeko prozedurak;
- hausnarketarako eremu eta aldiak kontuan hartzea.

## 2.2.- “Irakasleak” aniztasunari begira:

Irakasleen beharrizanei egokituriko aniztasuna tratatzeko, hezkuntza erkidego osoaren eta bereziki irakasleen laguntza behar da. Irakasleak jarrera eta gaitasun egokiak izan behar ditu, ikasleari bere beharrizanen arabera erantzuteko.

Irakasleen taldeak antolatuta egon behar du, ikasleen aniztasunei benetako erantzun egokia emateko. Horretarako, ondokoak aurrez ikusi behar ditu: hausnarketa eta prestakuntzarako eremu eta aldiak, praktiken ikuskatzea, profesionalen arteko laguntzak, prestakuntza ikastetxean bertan, adituen aholkularitza eta abar.

Irakasleen ardura da programak ikasleen beharrizanei egokitzea, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektutik (PEC) eta Ikastetxearen Ikasketa-Proiektua (PCC) abiatuz. Programa horiek gelako prozesu didaktikoa zuzentzen dute eta ikasle guztien gaitasunak garatzea dute helburu. Prozesu didaktiko hori ondokoetatik abiatu behar da:

- Gelan gertatzen dena ikasle eta irakasleen eta ikasleen euren arteko elkarrekintzaren emaitza da;
- Gelako giroa ona bada, ikasleak hobeto ikasiko du eta hobeto helduko da pertsona moduan;
- Sinetsirik egon behar dugu ikasle guztiek lor ditzaketela etapako oinarritzko helburuak eta guztiek uler ditzaketela kontzeptu, prozedura eta jarrerak;
- Ikasketako edukiak ikasleen esperientziatik eta euren interesetatik hurbilekoak izan behar dira;
- Ikasketek eta lan teknikek bakarrik ikasten laguntzen diote ikasleari;
- Bakarkako eta taldeko lanaren arteko oreka beharrezkoa da norberaren eta ikasketa prozesuaren garapenerako.

Irakasleak aniztasunari behar bezala erantzun diezaion, ondokoak garrantzitsuak dira:

- irakasleak gaitasuna izan behar du ikasketa egoera jakin batzuk sortzeko eta egoera horien bidez ikasleen erritmo eta estiloei erantzuteko;
- taldearen eta gelaren arteko autonomia, non irakaslea baita zuzendaria;
- zertan eta nori eskaintzen dion astia irakasleak;
- nola tratatzen dituen zailtasunak dituzten ikasleak euren ikasketa prozesuan;
- irakasleak emozionalki inplikatzeko gaitasuna izan behar du.

Tutoretza eta orientazioa funtsezkoak dira ikasleak banan-banan ezagutu eta horien banakako ardura izateko. Orientazio sailaren eta laguntzarako kanpoko

zerbitzuen bidez, tutoreek hurbiletik aztertuko dute ikasleen ikasketa prozesua, gainera, zailtasunen zioak ikertu eta helburu horiei begirako programa eta ekintzak egingo dituzte. Era berean, taldearen dinamika eta ikasleak taldean nola integratzen diren ikuskatuko dute.

Irakasleen lanaioak definizio anbigua du Bigarren Hezkuntzan eta horrek arazoak dakartza ikastetxeko lana antolatzeke orduan. Beharrezkoa da kontzeptua argitzea, Hezkuntza Administrazioaren eta irakasleen sindikatuko ordezkarien arteko negoziazioaren bidez.

### ***2.3.- “Testuingurua” aniztasunari begira:***

Marko arau-emaileak baldintzatzen du eskola ikastetxeetako ekintza, eta marko horrek aniztasuna erraztu edo oztopa dezaketen egiturak definitzen ditu. Egunean-egunean argiago dago DBHko egungo curriculum egitura ez dela aniztasuna bultzatzeko egokiena. Lehengo BBBren ordezkari egitura akademizista horrek hamabi urteko ikasleak barnehartzen ditu; izan ere, lehengo OHOk goi zikloa ordeztu eta DBH osoa “hartu” du. Gauzak horrela, eragozpen anitz dago koordinazioan, taldeko lanean, tutoretzan eta abarretan. Aipatu alorrok funtsezkoak dira etapa honetan, baina egungo curriculum egiturak ez du horiei ekiteko erraztasunik ematen.

Familia da ikasleak gizarteratzeko duen lehenengo markoa, hor aurkituko baititu pertsona moduan heltzeko beharrezko baliabide afektibo eta motibatzaileak. Seme-alaben berezitasunak kontuan izanik, gurasoek hezkuntza ikastetxearekin hitzartuko dituzte haurren heziketarako jarraibiderik egokienak. Nolanahi ere, ezin ahaz dezakegu eskolak konpentsatu behar dituela haurrak familian dituen gabeziak.

Famili hausturaren edo gizarte bazterkeriaren ondoriozko arazo larriak direla eta, baliteke ikasleak jarrera arazoak izatea eta, halakoetan, beste zerbitzu batzuk behar izaten dira, eskolaz bestalde. Ildo horretatik, udaleko gizarte zerbitzuek, aldundietako gizarte ongizate sailak, osasun eta kultur zerbitzuek eta enplegu politika eta erakundeek besteak beste, lankidetzak eta koordinazio programak egin behar dituzte hezkuntza ikastetxeekin, tratamendua koherentea eta integratua izan dadin.

## **3.- EAEko egoera.**

### **3.1.- Antolamendu akademikoa:**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak marko bat ezarri du ikastetxeek aniztasunari erantzun diezaioten. Hainbat neurri hartu dira:

- Hezkuntza jarduerari buruzko neurriak. Neurri arruntak;
- Arazo bereziei erantzuteko neurriak. Aparteko neurriak.

#### *3.1.1.- Neurri arrunt eta orokorrak:*

- a) **Ikastetxeen Ikasketa-Proiektuak** atal berezia izan behar du, aniztasunari buruzko planteamendua azaltzeko, betiere aniztasunaren benetako testuingurua aintzat hartuz.
- b) **Programazio didaktikoa** taldeko ikasleen beharrezanean egokituko zaie eta beharrezan horiek hasierako ebaluazioan detektatuko dira. Irakasleek alor guztietako programazioak koordinatu eta horien jarraipena egingo dute, batez ere ebaluazioari dagokionez.
- c) **Alor eta gaiak orduka banatzea.** Bi irizpide erabili dira ikasleen beharrezanean erantzuteko. Hasierako asmoa zen ikastetxeek astia izatea etapa guztietan ikasleen beharrezanean erantzuteko, gainera, taldeko tutoretza eta aukerako espazioa bermatu ziren. Gero, denbora DBHko enborreko ikasgaietan eta Batxilergoko gairik akademikoenetan (zailtasunik handienak zituztenak) banatu zen. Horretara, zenbaitzuen eskaerei erantzun bazitzaie ere, beste batzuek neurri hori kritikatu zuten, ikastetxeak mugaturik zeudelako esku hartzeko orduan.
- d) **Aukerako espazioa.** Espazio honetako ikasgaien bidez, beste modu batera antolatzen da *curriculum*a, ikasleentzat interesgarriagoak diren eredu didaktiko berritzaileak daudelako.

#### *3.1.2.- Aparteko neurriak:*

- a) **Beste urtebetez geratzea ziklo edo ikasturtean.** Ziklo edo ikasturteko ikasgai guztiak gainditzen dituztenak hurrengo ikasturtera igaroko dira, baina bi ikasgai gainditu gabe utzi dituztenak ere, baina beste urtebetez geratu beharko dute, baldin eta gainditu ez dituzten ikasgaiak ikastorduen %50 baino gehiago ez badira. Bi mutur horien artean dauden kasuan, irakasleen bi herenak erabakiko du hurrengo

ikasturtera igaroko diren ala ez. Lehen Hezkuntzan behin baino ezin daiteke neurri hori aplikatu eta DBHn ere behin bakarrik; birritan ere aplika daiteke, baldin eta lehen hezkuntzan aplikatu ez bada edo zinez uste bada ikasleak etapako helburuak beteko dituela.

- b) **Hezkuntza esku-hartze proiektuak.** Gizarte arazo edo jarrera disruptiboak direla eta, atzerapen handia duten eta inola ere ikasi nahi ez duten 16 urtetik beherako ikasleentzako proiektuak dira. Halako esku-hartzea behar duten ikastetxeek ikasle horiekin jarduteko proiektua izan behar dute eta beharrezko aldaketak egin beharko dituzte *curriculum* eta antolaketan; gainera, ikasleak ahalik eta gutxien bereizi behar dira eta tutoretza pertsonalizatua eskainiko zaie, oinarrizko ikasketak izan ditzaten. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko giza baliabide eta baliabide materialak emango ditu.
- c) **Osagarrizko eskolatzearen programak.** Kasurik larrienen, ikastetxeek proposa dezakete ikaslea ikastetxe espezializatu batera eramatea. Profesional anitzez osaturiko taldeak neurri hori komeni denentz aztertu eta Hezkuntza Ikuskaritzak ikus-onetsiko du.
- d) **Curriculum desberdinak eratzeko programak** ikasi nahi duten eta lehenengo zikloko helburuak gainditu dituzten 16 urtetik gorako ikasleentzat dira.

### *3.1.3.-Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako neurriak:*

- a) **Banakako curriculum-egokitzapenak.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen *curriculum* egokitzeko mekanismoa da. Lehen eta Haur Hezkuntzan gela arruntean lan egingo da batez ere ikasle horiekin, eta ahalik eta gutxien gelatik kanpo. Bigarren Hezkuntzan, berriz, lan gehiago egiten da gelatik kanpo.
- b) **Zereginen ikaskuntzarako gelak.** 16 urteko ikasle atzeratuek gela horietan ikasten dute, non lehenengo urratsak eman baititzakete profesional moduan.
- c) **Eskolan eman beharreko denbora gehitzea edo gutxitzea.**
  - Ezgaitasunak dituzten ikasleak gainerako ikasleak baino urtebete gehiago egon ahal izango dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. 16 urte dituztenean, atzeratuak atazak ikasteko geletara igarotzen dira.
  - Gaitasun handia duten ikasleak, aldiz, urtebete gutxiago egon daitezke hezkuntza etapa bakoitzean.

I. ERANSKINEan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garatutako araudia jaso da, non aurrerago aipatu neurriak zehazten baitira.

### 3.2.- Aniztasunari arretarako baliabideak:

Bestalde, Hezkuntza Administrazioak zenbait eskuhartze sustatu edo errazteko baliabideak esleitzen ditu. Ondokoak dira baliabide horiek:

#### 3.2.1.- Aholkularia lehen hezkuntzan eta orientatzailea Bigarren Hezkuntzan.

- a) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek **aholkularia** dute. Gaitasun berezia duen irakaslea da eta beste irakasleei laguntzen die aniztasun kontuetan. Lansaioaren bostena eskaintzen die zailtasunak dituzten ikasleei, bai gelatik kanpo, bai gela barruan tutorearen laguntzaile lanetan.
- b) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek **orientatzailea** dute. Psikopedagogian espezializaturik daude, eta irakasleei laguntzen diete ikasleen ebaluazio psikopedagogikoa egiten eta kasu bakoitzerako irtenbide egokiak aurkitzen. Lansaio osoa ematen dute orientatzaile lanetan.

#### 3.2.2.- Hezkuntza errefortzurako irakasleak.

Hezkuntza errefortzua aniztasuna tratatzeko neurri arrunta da, eta honetan oinarritzen da besteak beste: taldeak zatitu, talde berean bi irakasle jarri, banakako edo taldekako tutoretza jarduerak egin ikastorduetatik kanpo...

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan irakasleek ikastorduetan geratzen zaien denbora emango dute hezkuntza errefortzu lanetan. Bigarren Hezkuntzako irakasleei lau ordu gehiago emango zaizkie DBHko 4. mailako talde bakoitzeko eta beste lau Batxilergoko 1. ikasturterako.

#### 3.2.3.- Irakasle espezializatuak:

- a) **Pedagogia terapeutikoa**. Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBH ematen duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan dago figura hori. Irakasle arruntari aholkatzen dio, beharizan bereziak dituzten ikasleei laguntzeko.

- b) **Entzumen eta hizkuntza alorreko irakaslea.** Lehen eta Haur Hezkuntzako hainbat ikastetxetan dago, hizkuntzako arazo espezifikoak dituztenei laguntzeko.

*3.2,4.-Jarduera berezietarako irakasleak:*

- a) **Curriculum desberdinetako taldeak** 98-99 ikasturtean hasi ziren. Baimena behar dute eta bi irakasle esleitu zaizkie: bat gizarte eta hizkuntza eremuko eta bestea eremu zientifiko-teknologikoa. Datorren ikasturtetik aurrera, DBH ematen duten ikastetxe guztiek izango dute dibertsifikazio kurrikularreko talde bat gutxienez, eta plantillako irakasle bat izango dute eremu bakoitzean.
- b) **Zereginen ikaskuntzarako geletako irakasleak.** Gela horietan pedagogia terapeutikoko irakasle bat eta Lanbide Prestakuntzako irakasle tekniko bat dago.
- c) **Hezkuntza esku-hartze proiektu bereziak.** Ordu kreditu bat emango zaie, proiektuaren berezitasunen arabera.

II ERANSKINean datu batzuk jaso dira, EAEn aniztasuna tratatzeko xedatu diren baliabideei buruzkoak.

*3.3.- Irakasleen prestakuntza:*

*3.3.1.- Irakasleen hasierako prestakuntza:*

Gai hori erabat baztertuta egon da hezkuntza erreforma diseinatu eta ezartzean. Nolanahi ere, beharrezkoa da gaiari ekitea. Erreformatan Bigarren Hezkuntzarako eskatzen duen profesionala ez da inola ere ikasketak amaitu berri dituen eta ia esperientziarik ez duen lizentziatua; izan ere, askoz jota Egokitze Pedagogikiko Ikastaroa (CAP) baino ez dute izaten. Egoera hori onartezina da eta Adminstrazioak eta Unibertsitateak sakon eta berandu gabe aztertu behar dute arazoa, interes korporatiboei lehentasunik eman gabe.



### 3.3.2.- Irakasleen prestakuntza iraunkorra:

Bestalde, Hezkuntza Administrazioak irakasleak prestatzeko plan instituzionala du, bai ikastaroak eskaintzean, bai ikastetxeko prestakuntza proiektuak sustatzean. Horrela, ikasleen hezkuntza beharrianak batera aztertzeaz gain, irakaskuntzako praktikaz hausnar dezake eta hobekuntzarako konpromiso kolektiboak har ditzake.

Irakasleak prestatzeko planean irakasleei eskumen handiagoak eman nahi zaizkie aniztasuna ondoko eremuetan tratatzeko:

- a) **Prozesu didaktikoa.** Hobekuntza didaktikoaren ildoetako bat da hainbat alorretan ageri diren ikasketa arazoak konpontzea. Antolaketa eta metodologia estrategiak ere planteatzen dira, gelako ikasleen aniztasunari eta prestakuntza ebaluazioari erantzuteko.
- b) **Orientazioa eta tutoretza ekintza.** Irakasleek eskumen handiagoa dute ikasleen ezaugarri psikologikoak eta adin jakin batean dituzten arazoak sakontzeko; horretarako, tutoretza ekintzako programak egin eta taldekako dinamikarako teknikak prestatzen dituzte, elkarriketa pertsonalak eta ebaluazio psikopedagogikoa egiten dute...
- c) **Aniztasunaren arazorik espezifikoak.** Gero eta gehiago ikusten da irakasleek ondokoak sakontzeko beharra dutela: gelako dinamika normalerako beharrezko giza abileziak, gatazken konponketa eta abilezia horiek irakasleei irakasteko ikasketa prozesuak. Bestalde, gizarte bazterkeria jasan duten irakasleei nola erantzun behar zaien aztertu behar da.
- d) Ondoko **irakasleak prestatzea**: jarrera disruptiboa duten ikasleentzako esku-hartze espezifikoak proiektuak egin behar dituztenak, baita programa kurrikularrak eta curriculum-egokitzapen indibidualak egin behar dituztenak ere.

Lehenengo OHOn hainbat urtez indarrean egon zen Prestakuntzako Plan Trinkoa (PIF). Plan horri esker, ikastetxerik gehienek benetako prestakuntza eta curriculum proposamen berrien inguruan hausnartzeko aukera eskaini zuten. Dena dela, Bigarren Hezkuntzan ez da irakasleen prestakuntza iraunkorrerako estrategia globalik egon, nahiz eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek horren beharrian handiagoa izan, espezialitate jakin bateko lizentziatura besterik ez dutelako.

#### **4.- Hobetzeko proposamenak.**

- 1) Oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa da 16 urtera arte eta printzipio hori bat dator gure hezkuntza sistemako integrazio printzipioarekin. Derrigortasun horrek ikasle guztien aukera berdintasuna bermatu behar du eta, aldi berean, aniztasuna hartu behar du kontuan.
- 2) Aniztasunaren iturbururik garrantzitsuenak ikasleen baldintza sozioekonomikoak, inguru kulturala eta ikasteko erritmo, gaitasun eta estiloa dira. Eskolaren eginkizuna da ikasle guztien oinarrizko ikasketak erraztea eta aniztasunak errespetatu eta bazterkeria saihestea, hala hezkuntza prozesura sartzean eta prozesuan bertan, nola azken emaitzetan.
- 3) Aniztasuna aintzat hartzeak berekin dakar banakako irakaskuntza aplikatzea. Irakaskuntza hori estrategia metodologiko eta antolamendu estrategietatik abiatuz aplikatuko da gelan; gainera, hainbat erritmo eta ikasketei egokituriko banakako nahiz taldekako lana egin ahal izango da bertan. Era berean, aniztasunari begira, beharrezko izango dira ondokoak: hezkuntza eta ikasketa prozesua orientatuko duen tutoretza ekintza eta guztien arteko elkarbizitza; azken hori hezkuntzako helburu dela ulertu beharra dago, eta ez eragozpenak saihesteko baliabide hutsa.
- 4) Hezkuntza ikastetxeek elkarbizitza, ikasketa eta kooperaziorako eremu izan behar dute. Proiektu Kurrikularrak definituko du zein esku-hartze eredu erabiliko duen ikastetxeak ikasleen beharrezko erantzuteko. Eskolako araudiak koherentea behar du izan proiektuarekin eta, estamentu guztiak sustatzeaz gain, elkarbizitza eta lankidetzarako giro egokia bultzatu behar du.
- 5) Irakasle eta administratzaile askok uste du aniztasunari eta hezkuntza beharrezko bereziei erantzutea gauza bera dela, baina beharrezko bereziak arazoaren zati garrantzitsu bat baino ez dira. 16 urtera arteko derrigorrezko hezkuntzan datzan sistemak hezkuntza prozesura sartzeko erraztasunak eman nahi dizkie, etiketaturik egon ez arren, analfabetismora ia beharturik dauden hiritar horiei.
- 6) Ikastetxe batzuetan zailtasunak dituzten ikasle anitz dago. Ikastetxe horietan ugari izaten dira motibaziorik ezagatik eta atzerapen eta moldatu ezintasunen ondoriozko arazoak dituzten ikasleak, beraz, arriskua dago ikastetxeok *ghetto* bihurtzeko. Egoera berezi horiei erantzuteko ikastetxeko planak egin badaitezke ere, Hezkuntza Administrazioak arazo horiei aurre egiteko erantzukizuna du. Halako egoerak saihesteko politikak aplikatu behar dira, eta, arazoa dagoenean, aparteko baliabideak emateaz bestalde, koordinazio jarduerak bultzatu behar dira inguruko ikastetxeekin.
- 7) Beste ikastetxe batzuek, aldiz, hiritar jakin batzuk onartu eta beste kolektibo batzuk baztertzeko dituzte. Sarritan, ikastetxeko ikasleek ez dute inguruko errealitatea islatzen. Gauzak horrela, nabarmena da bazterkeria soziokulturala jasaten dutenek eskola zailtasunak izaten dituztela; eta, askotan, eskola zailtasunak dituztenek hizkuntza aukeratzeko zailtasunak ere izaten dituzte. Batzuetan, halako egoerak

kontrajarriak izaten dira aniztasunak konpentsatzeko hezkuntza sistemarekin. Hori dela eta, indarreko eskola mapak izan ditzakeen ondorioak ebaluatu behar dira, baita, hala badagokio, neurri egokiak hartu ere. Bestalde, kolektibo horiek baztertzan dituzten ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Administrazioari beharrezko neurriak hartzeko eskatzen zaio.

- 8) Gelan irakasle asko egoteak ez die onik egiten ikasleei, batik bat, eskola ikuspuntutik “*ahulenak*” direnei. Lehen Hezkuntzako espezialisten eginkizuna kontuan izanik eta DBHko *curriculum*a horrenbeste alor eta ikasgaitan banatzen dela aintzat hartuz, ikasleari nekezago zaio kontzentratzea eta galdu egiten da, erreferentzi puntu argirik ez duelako. Irakasle asko dagoenean gelan, gutxiago igartzen da bakoitzaren eginkizuna eta irakasleen arteko koordinazioa bideraezin bihurtzen da. Beharrezko deritzogu taldeko irakasle kopurua gutxitzeari eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko espezialisten eginkizuna bideratzeari; horretara, irakasle batek *curriculum*eko hainbat ikasgai emango lituzke. Hezkuntza Administrazioaren egungo joeratik aldentzea dakar horrek, Administrazioak alorren zatiketa erraztu duelako: besteak beste, Etika sartu eta Zientzia alorra behin betiko banatu du.
- 9) Derrigorrezko hezkuntzaren ezaugarrietako bat taldeen heterogeneitatea da, gizarteko aniztasunarekin hala edo hola bat datorrena. Nolanahi ere, ikastetxeek talde homogeneousatuagoak bilatu ohi dituzte eta, batez ere, ikasleen gaitasunaren arabera egiten dituzte taldeak. Hainbat aitzakia erabili dira, hala nola, hautazko ikasgaiak, batxilergoko hainbat modalitate edo prestakuntza ziklo egiteko aukerak eta abar. EAEn IEE ezarri zen sailkaketa bultzatzeko asmoz, baina emaitzak ezkorrak izan ziren: gaitasunik handiena zutenen autoestimazioa jaitsi zen eta zailtasun handiagoa zutenek etekin gutxiago atera zuten. Gaitasunaren araberrako talde homogeneousoak egitea kaltegarria izan daiteke ikasleentzat, taldearen elkarrekintza eskasten delako eta zailtasunez beteriko ingurune hitsa are gehiago pobretzen delako. Horrelako taldeak aldi baterako soilik antola daitezke eta, betiere, bereizkeria positiboan oinarritutako plan bereziak, hau da, aparteko baliabideak izanik.
- 10) Aniztasuna aintzat hartzeak dakartzan arazoak direla eta, sarritan, zailtasunik handienak eta jarrera arazoak dituzten ikasleak banatzeko neurriak proposatzen dira; horrela, hobeto erantzuten zaie ikasle horien beharrezko neurriak eta ez zaie gainerakoei eragozten. Onartu beharra dago nekeza dela ikasle desberdinez osaturiko taldeari irakastea, batez ere, irakaslea lehenengoz egon bada halako egoeran. Dena dela, irakasleak esperientzia gehiago duen heinean, esku hartzeko modu eraginkorragoak aurkitzen ditu eta hezkuntza ikastetxeek ere horrelako zailtasunak gainditzeko mekanismoak aurreikusten dituzte.
- 11) DBHn, hautazko espazioak derrigorrezko *curriculum*ean sartzeko erraztasunak eman diezazkioke ikasleari, bere intereseko proposamen didaktikoak eskaintzen zaizkiolako. Nolanahi ere, batzuetan, ez dakigu ikaslearen aukerez baliatzen eta hautazko espazioa ikaslearentzako zama bihurtzen da, laguntza izan beharrean. Batxilergoko hautazko espazioa txikitzean, zailagoa da interes desberdinak aintzat

hartzea; hala ere, aintzat hartu beharko lirateke prestakuntza maila horretan. BBBko lehengo eredurantz goaz berriro ere.

- 12) Plano didaktikoan, testuliburu, material kurrikular eta irakasleen metodo askok ikasle tipoen multzotzat jo ohi dute taldea. Oraindik ere “*batez-bestekoa*” hartzen da kontuan, eta ez taldearen alderik “*onena*”, zeina atsegingarriena baita. Irakasleentzat lagungarri izango diren eredu didaktikoak eta gela antolatzeke moduak behar dira, baita hainbat metodologia ere, taldeko ikasle guztiei erantzun ahal izateko.
- 13) Zailtasun horiek aintzat hartzen badira, irakasleek beren *eginkizun* profesionala aldatu beharko dute: teknika berriak ikastea, eginkizun berriak onartzea eta metodologia berriak abian jartzea. Irakasleei eskatutako ahalegin hori eragingarria izan dadin, beharrezko prestakuntza, ereduak edota gelan esku hartzeke erreferenteak eskainiko dira. Horrek guztiak bat etorri behar du hausnarketan eman beharreko denborarekin eta kooperazio lanarekin, gainera, irakaslearen eginkizunak gizarte aintzatespena izan behar du.
- 14) Aniztasunari erantzuteke, hezkuntza ikastetxeen eta ikasleen familien arteko ekintza koordinatua behar da. Era berean, eskola zerbitzuek Administrazioek eta inguruko erakundeek eskainitako gizarte, kultur, osasun eta bestelako zerbitzuekin harremanetan egon behar dute. Ikasleen arazo askori behar bezalako erantzuteke, diziplina anitzeko ikuspegia behar da eta inplikaturiko erakunde guztien ahalegin eta aukerak bildu behar dira.

**Bilbo, 2000ko martxoa**

# KULTURARTEKO ESKOLA

## EAEtik egindako hausnarketak

### 1.- Sarrera

“**Interkulturalismoa**” gizarte guztien aniztasun kulturalari buruzko kontzeptu teoriko eta praktikoa da, berdintasun printzipioan, elkarrekintzan eta gizarte eraldaketan oinarritzen dena. Interkulturalismoak “*multikulturalismoa*” gaingitu nahi du; izan ere, azken horrek gizarte bereko kulturak aintzat hartzen eta errespetatzen ditu, baina euren arteko elkarrekintzak kontuan izan gabe. Interkulturalismoak ez du legebidezkotzat jotzen gehiengoaren kulturak gutxiengoena “*berenganatzea*”, eta beste kultura batzuekiko bereizkeria eta xenofobia gaitzesten du.

Kultur aniztasunaz jabetzeak kulturak erlatibizatzea dakar, horietako bakoitzaren oinarri eta aldarrikapenak ezagutzera iristen garelako. Baina interkulturalismoa behar bezala planteatzeko, beharrezkoa da kulturak indartzea eta kultura horretako kide direnak euren berezko kultur ezaugarriekin identifikatzea. Bi premisa horietatik abiatuz, kulturen arteko aberastasuna bila daiteke, batzuk beste batzuen gain jarri gabe (gehiengo izateagatik edo erabilerak bultzatuta) eta beste kultura batekoa izateagatik inor baztertu gabe. Kulturen arteko harreman horrek kultura guztiak aberastu, eraldaketa erraztu eta kultura bakoitzaren ezaugarriak errespetatzen ditu.

Lehen argi eta garbi bereiziriko kulturak soilik ziren kultura desberdinak. Orain, aintzat hartzen da gure lurralde eremuan badirela, ezaugarri kultural erkideak izan arren, errespetua zor zaien gutxiengo kulturalak eta gutxiengo horiekin elkarrizketatu behar dugula. Gainera, legeek aberastasun kolektibotzat jotzen dute hizkuntz aniztasuna, eta berezko hizkuntza duten autonomi erkidegoetan, hizkuntza ofizialtzat hartzen dira, gaztelaniarekin batera. Hezkuntza legeen helburua da, gaztelaniaz gain, ikasleek euren autonomi erkidegoko hizkuntza ikastea eta kultur aberastasuna aintzatestea, hizkuntza bat baino gehiago dagoelako.

Eskola eremuan kultur aniztasunaren kontzeptua aldatuz joan da, gizarteko kultur aniztasuna aldatu den heinean. Zubi-eskolak eta eskola bereziak gutxiengo kulturei erantzuteko lehenengo ahalegina dira. Ikuspuntu bereganatzailetik abiatzen dira, hau da, ikasleak gehiengoaren kulturari sartzea dute helburu, bai eskola arruntetarako bidea errazteko, bai laneratu eta gizarteratzeko. Helburu bera dute ikasle etorkinentzako ikasketxe espezifikoak eskatzen dituztenek, hizkuntza ikasketa erraztu eta hezkuntza sistema arruntera sartzen lagundu nahi baitiete ikasleoi.

Eskola integratuen iritziz, eskola arruntei ondokoa dagokie: ikasle guztiak onartzea, bakoitzaren baldintza eta beharrianak kontuan izanik; ikasle guztiei eskolako bizitzan parte hartzeko erraztasunak eta elkarbizitzako onurak ematea; eta, azkenik, beste kultura batzuetako ikasleekin errespetuz elkarbizitzea. Gerora ikusi denez, aipatutakoa ez da nahikoa eta kulturarteko eskolak ondokoa mahaigaineratu du: eskolan hainbat kulturek elkarbizi behar dute, kultura horiek ikastean, ikasleek beren kulturako erreferentziak aurki ditzaten eta, aldi berean, beste kultura batzuk ezagutu eta balora ditzaten.

## **2.- Oraingo eta orain arteko ibilbidea EAEn.**

Euskaldunon kultur aniztasunak erro sakonak ditu. Kultur aniztasun horiek era askotara agertzen dira eta batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak izan ohi dira, testuinguruaren arabera. EAEn sortutako arazoei hainbat erantzun eman zaie: modu askotara erakutsi da kultur aniztasuna onartzen dela, baina bazterkeria eta tolerantziarik eza ere ezagutu ditugu. Euskalduna, batez ere bizitza pribatuan, abegikorra, solidarioa eta irekia da. Hala ere, aldi berean, batez ere bizitza publikoan, zatiketa, liskar eta intolerantziarako joera dago.


Interkulturalitateak desberdinak direnekin elkarbizitzea dakar besteak beste, eta horixe da helbururik garrantzitsuena EAEn. Euskal hezkuntza sistemaren xedeetako bat da euskal hiritarrek aniztasuna aintzat hartzea, bereizkeria eta liskarra baztertzeko eta desadostasunak elkarrizketa eta negoziazioaren bidez gainditzea.

Interkulturalitateari begira, EAEn zaila da bi muturren arteko oreka lortzea, alegia: kultur aniztasuna aintzat hartzea eta, aldi berean, hainbeste urtean ukatu zaigun kultur identitateari eustea; izan ere, kultur identitate hori berreskuratu beharra dago. Ezin dugu interkulturalitateaz hitz egin, mutur horietako bat ukatzen bada edo bata sakrifikatu behar bada bestea berresteko.

Gauzak horrela, hezkuntza sistemak arazo ugari egin behar dio aurre eta arazok kulturarteko eskolan aurkitu behar dute irtenbidea:

- 1) Bi hizkuntza ofizial daude, eta horietako bat, euskara alegia, hizkuntz minorizatua da. Eusko Jaurlaritzak 1981ean eskuratu zituen hezkuntza eskumenak eta, harrezkeror, euskara berreskuratu, normalizatu eta orokortzeko ahaleginetan dabil. Urte askotan euskara familian soilik erabili da eta errepresio politiko latza jasan du.

1981ean, irakaskuntza publikoko irakasleen %5ak baino ez zekien euskaraz; egun, %70 ingurura iristen dira. Hiru hizkuntza<sup>1</sup> eredu ezarri dira eta ikasleek askatasunez aukeratu dute nahi izan duten eredia, inolako inposaketarik gabe. Grafikoan 1999-2000 ikasturteko matrikulazioan ikusten denez, ereduaren eskaera nolakoa izan den agertzen da. Pixkanaka-pixkanaka, eskolako kide guztiek ikasi dute euskara inolako bereizkeriarik gabe. Ebaluazioek adierazten dutenez, euskara nagusi den ereduetan matrikulatzen direnek ez dute gaztelania edo etapako ikasgaiak ikasteko eragozpenik; aitzitik, beste hizkuntza batzuk ikasteko erraztasuna dute.



- 2) Gizarteak interes handia du ikasleek, bi hizkuntza ofizialez gain, kanpoko hizkuntza bat ere ikas dezaten. Gehienek ingelesa ikasi nahi dute, baina hurbiltasuna dela eta, komenigarria da laugarren hizkuntza frantsesa izatea.

Eskola eremuan, kanpoko hizkuntza lehenbailehen ikasten hasteko ekintzak bultzatu dira. 1987-88ko ikasturtean, saiakuntza berri bati ekin zitzaion eta 8 urtetik gorako ikasleei ingelesa irakasten hasi zitzaion; ildo beretik, 1990ean LOGSEk ezarri zuen 8 urtetik gorako ikasle guztiek ikasi behar zutela kanpoko hizkuntza. 1991-92 ikasturtean, Ikastolen Federazioak ingelesa 4 urtetik gorakoei irakasteko erabakia hartu zuen eta, 1994-95 ikasturteaz geroztik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antzeko saiakuntza egin zuen ikastetxe publikoetan. Azkenik, 1999-2000 ikasturtean, nahi duten ikastetxe guztiek aukera izan dute saiakuntza horri ekiteko eta, horretarako, irakasleak, prestakuntza berezia eta behar bezalako curriculum-materialak eskaini zaizkie. EAEko 200 ikastetxeetan, 4 urteko ikasleak ingelesa ikasten hasi dira, eta asteen gutxienez ordu eta erdi ematen dute horretan. Saiakuntza horren ondorioz, beharrezkoa da hurrengo etapetako curriculumak eraldatzea.

Hobetzeke dago oraindik kanpoko hizkuntzaren irakaskuntza hezkuntzako etapa guztietan. Hala ere, irakasleen hizkuntz eskakizuna handitu da, ezinbestekoa baita irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko. Beste faktore garrantzitsu bat da ikasleak zenbat den-

<sup>1</sup> **A Eredua**, irakaskuntza gaztelaniaz da eta euskara ikasgai; **B Eredua**, irakaskuntza elebiduna; **D Eredua**, irakaskuntza euskaraz da eta gaztelania ikasgai.

bora ematen duen hizkuntzarekin harremanetan: familiek, ahal duten heinean, kanpora edota udalekuetara bidaltzen dituzte oporraldian eta eskola partikularretara ikasturtean.

Ikuspuntu interkulturaletik, garrantzitsua da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren helburua: “*hizkuntzen irakaskuntza integraturantz*” jo behar dugu. Hizkuntzen irakaskuntza integratua ikastetxeetako hizkuntz proiektuan jaso behar da eta, ikastetxeke egoera eta helburuak aintzat hartuz, honakoa bilatu behar da: hizkuntzen arteko irakaskuntza-ikaskuntza koordinatua eta kulturen arteko harremanak.

- 3) EAEn aniztasun handia dago eta, aldi berean, kontzientziazio kolektiboa ere handia da. Familian bertan gero eta nahaste handiagoak eta askotariko ideologiak daude. Nolanahi ere, guztiak bat datoz herri bereko hiritar direla esatean. Euskal kultura ez da monolitikoa, baizik anitza: interkulturalitatea da identitatearen ezaugarrietako bat.

Eskola curriculumak adierazi du ikastetxeetan ikasleen kulturako elementurik garrantzitsuenak irakatsi beharko lirakeela, euren errealitate kulturala uler dezaten eta beste kulturetakoekin elkarriketatzeko gai izan daitezten. Oraindik ez dugu erabaki (sarritan eztabaida politikoa da, hezkuntzakoa baino gehiago) zein den kurrikulu erkidea eta zein autonomi erkidego bakoitzekoa. EAeko kurrikuluan ahaleginak egin dira ikasleari bere ezaugarri kulturalak irakasteko eta baloratzen laguntzeko, alferreko lokalismoetan erori gabe; era berean, Espainiako beste herriekin elkarbanatzen dugun kultura irakatsi zaio.

- 4) Gureaz oso bestelako eta sarritan baztertutako kultura dute ijitoek. Gutxiengo etniko horrek mende asko daramatza gurekin elkarbizitzen. Bestelako kultura izateaz gain, familiarik gehienek gizarte bazterkeria jasaten dute pobreak direlako, eta lan munditik kanpo eta hiri *ghetto*etan bizi dira.


EAEn dauden ijitoen haurrak 4.500 eta 6.000 bitartekoak dira. Kopuru hori ez da ofiziala. Oso zaila da zenbat diren jakitea, familiarik gehienak leku batetik bestera aldatzen direlako. Eskolak ijitoei eman dien erantzuna unean uneko beharrizanen arabera koa izan da:

- 1970eko hamarkadan, eskolatutako haur kopurua txikia eta aldakorra izan zen eta ijito batzuk bakarrik egon ziren eskolan 11 urtera arte. Kasu batzuetan, zubi-eskolak sortu ziren eta, beste batzuetan, eskola bereiziak egin ziren. Ekimen horrek gutxi iraun zuen.
- 1980ko hamarkadan haurrik gehienak eskola arruntetan eskolatu ziren, eskola integrazioaren printzipioari jarraiki. Printzipio hori gure hezkuntza sistemako funtsezko ezaugarria da 1981az geroztik. Ijitoak gune jakin batzuetan metatzen direnez, haurrak ikastetxe gutxi batzuetan eskolatzen dira, horrela, ijitoak gehiengoa izan ohi dira eta ijitoak ez direnak beste ikastetxe batzuetara joaten dira; hortaz, *ghettizazio* fenomenoaren ematen da eta eskola bereiziak sortzen dira batzuentzat eta besteentzat, nahiz eta eskola integratuak helburu izan.




- Hainbat ekintza bultzatu ziren: batik bat, jantokiko bekak ematea eta familiaren eta eskolaren arteko bitartekariak izendatzea, eskolatze eza gainditzeko eta familia eta eskolaren arteko harremanak hobetzeko.
- 1990eko hamarkadan, ijitoen kolektiboak eta ijitoen irakasleek hezkuntza interkulturala proposatu zuten. Irakasleen prestakuntza prozesuak bultzatu zituzten, irakasleek ijitoen kultura ezagutu eta irakaskuntzan erabil zezaten, ijitoen familiak uler zituzten eta horiekin harremanetan jar zitezten. Horrez gain, eredu-duk curriculum-materialak prestatu zituzten.
- Egun, aurretik egindako lanarekin jarraitzeaz gain, ondokoa planteatzen da: Lehen Hezkuntza amaitu ondoren, nola lor daitekeen haurrek DBHko ikasketak egitea. Ijitoek ohitura oso errotuak dituzte batik bat neskei dagokienez, beraz, 14 urtetik gorako neskek ez dituzte eskuarki DBHko ikasketak egiten. Era berean, ijitoen familiarik gehienek uste dute haurrek nahikoa ikasi dutela 14 urtera arte eta familiako ekonomiari laguntzeko prest daudela. Ijitoen kolektibo batzuen ustez, eskolako hezkuntza da herriak promozionatzeko modurik egokiena eta motibatueni beharrezko laguntzak emateko eskatu dute; horrela, beste familia batzuentzako eredu izango dira eta gainerako neska-mutilek ikasketen baliagarritasuna ikusiko dute.

5) Oraindik ez dago atzerritar asko EAEn, baina, agerikoa denez, askoz gehiago izango dira laster. Atzerritarren artean, oso gutxi dira eskolara doazen haur eta helduak. Jatorri oso desberdinekoak dira eta sakabanaturik daude, nahiz eta lan bila etorri diren atzerritar batzuk hiri eta eskualdeetan kokatu diren. Hauxe izan da atzerritarren eboluzioa EAeko oinarrizko hezkuntzako eta HHiko ikastetxeetan:



Hauxe da jaioterriaren araberrako ikasleen kopurua ehunekotan adierazita:



Helduekin egin diren orain arteko jarduerak gaztelaniaren ikasketan eta alfabetatzean oinarritu dira (%65). Eskolara joateko adina dutenei dagokienez, berriz, ikastetxean nola sarrarazi planteatu da: hizkuntza ikasi behar dute, euren adineko talde arruntetan eskola daitezten.

Eskola ikastetxeetako ikasleak gehituz joan ahala, jabetu gara atzerritarren beharri zaneiei erantzuteko zailtasunak ditugula, beste hizkuntza eta kultura bat dutelako. Hori dela eta, ikastetxeek jarraibideak eskatu dituzte behar bezalako hezkuntza proiektua definitzeko, harrera eta eskolatze arrunteko fasean.

Ikasle horiek ikastetxe gutxi batzuetan pilatzen dira, ez hezkuntza helburua hori delako, baizik lan, ekonomi eta hirigintza arazoak daudelako. Beste gutxiengoekin gertatzen den bezala, eskola ikastetxe jakin batzuetara biltzen dira atzerritarrik gehienak eta, askotan, halako egoerak saihestezinak izaten dira.

- 6) Pixkanaka-pixkanaka pertsonok mugitu egingo gara, beraz, Europako Batasunean egotea abantaila da eta baliagarri izango zaigu herrien arteko kulturen komunikaziorako.

Kanpoko hizkuntzak ikasteko interesa egungo jardura ekonomikoaren eta, zehatz esateko, enpleguaren egoeran datza. Nolanahi ere, EAEn ez dugu erkidegoko hezkuntzaren dimentsioa lortu, nahiz eta beste herrialdeekin harreman asko (Frantziarekin mugan gaude) eta portu eta esportazio jardura ugari izan. Europako beste herriekiko hezkuntza proiektuetan dugun partaidetza txikia da, LINGUA programan izan ezik.

- 7) Informazioaren gizarteak, non aktiboki parte hartu nahi baitugu, kulturak hurbiltzen ditu eta, orain, lehen ez bezala, gure bizimoduaren zati bihurtu ditu. Eskola eremuan,

erronka garrantzitsua da informazio eta komunikazioko teknologiak irakaskuntzan integratzea eta ikasleak teknologi prozesu berrien bidez prestatzea.

1980ko hamarkadan, teknologia berriak irakaskuntzan (batez ere bigarren hezkuntzan) sartzeko lehenengo ahalegina egin zen. Teknologiak aurrera egin ahala, Administrazioaren jardura ikastetxeetako ekipoa mantendu eta handitzera murriztu zen. Ikastetxeen ekimenaz eta tokiko administrazioen laguntzaz, ikastetxe ugarik lortu du beharrezko ekipoa eta Internetekin konektatu eta horrek dakartzan zerbitzuak erabiltzen dituzte.

Une honetan, azpiegiturak prestatzen ari gara, eskola ikastetxe guztiak hezkuntza *Intraneten* bidez konekta daitezen; horretara, kudeaketa erraztu eta informazioa eta hezkuntza baliabideak eskuratuko dituzte, gainera, Interneterako sarbidea eta ikastetxe eta zerbitzuen arteko komunikazioa izango dute.

Bestalde, programa bat definitzen ari gara, zerbitzu horiek irakaskuntzaren kalitatea hobe dezaten; era berean, programa horren bidez, eskolako irakaskuntzaren, irakasleen eta ikasleen ikasketa prozesuaren eginkizuna egokituko da, betiere ondoko printzipioetatik abiatuz:

- Eskola sistemaren bidez, ikasle guztiek ezagutu eta erabiliko dituzte teknologia berri horiek, ezinbestekoak baitira informazioaren gizarte berrira sartzeko; bide horretatik, gune soziokultural txiroenetatik datozenen egoerak konpentsatuko dira.
- Hezkuntza sistemak bide horietatik lor daitekeen informazioa prozesatzen lagundu behar dio ikasleari; era berean, informazioa hautatzeko balore demokratikoak eta pentsamoldea eratzeko erabiliko dituen estrategia kognitiboak finkatuko ditu.
- Hezkuntza sistemak baliabide horiek aprobeztatuko ditu, hau da, informazio iturriak alderatu eta kultur desberdintasunak aintzatetsiko ditu, lagungarri izango zaiolako egoerak ulertu eta epaitzeko eta beste bide eta sentimendu batzuk eza-gutzeko.

### **3.- EAEko lege markoa kulturarteko eskolaren inguruan.**

Eskola integrazioa euskal hezkuntza sistemako oinarritzko printzipioa da. Printzipio hori 1981ean formulatu zen eta LOGSEk berretsi zuen. Eskola integratzailea eskola interkultural bihurtuko da, ikasle aniztasunaz kolektiboki kontzientziatzen garen heinean.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak ondoko helburuak proposatu ditu besteak beste:

- Berdintasun baldintzetatik abiatuz, ikasle guztiei bermatzea bi hizkuntza ofizialak jakingo dituztela derrigorrezko irakaskuntza aldia amaitzean, eta, aldi berean, euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzea;
- Euskal Herriko hiritar diren heinean, ikasleei beren kultur identitatea aurkitzen laguntzea; horretarako, bertako historia eta kultura irakatsi eta bertako inguru geografiko, sozioekonomiko eta kulturalean errotzen lagunduko zaie;
- Bake eta askatasunerako heziketa eta herrien arteko kooperazioa eta solidaritatea bultzatuko dira.

Ikastetxeek, beren ingurune eta ibilbidea aztertu ondoren, Hezkuntza Proiektua, helburuak eta oinarriko ildoak definituko dituzte. *“Hezkuntza Proiektua proiektu integratzailea izango da eta oinarriko balore izango ditu bereizkeriarik eza eta hezkuntza integratzailea”*, hala dio legeak berak. Proiektu Kurrikularrean, irakasleek ikastetxeko hizkuntza proiektua eta desberdintasunari begirako jarraibideak erabakiko dituzte.

Ikastetxeetako kolektibo jakin batzuek hizkuntza zein eskolako beharrizan bereziak izan ditzakete eta, ondorenez, neurri bereziak hartu beharko dira hezkuntzako esku-hartze proiektuan.

Kulturarteko eskolarekin zerikusia duten zenbait gaitan, ikastetxeek **hezkuntzako esku-hartze proiektuak** erabil ditzakete gizarte bazterkeria jasaten duten edo eskolan integratzeko zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko; horien artean daude gutxiengo etnikoetakoak edo etorkinak.

Gela arruntek beharrizan horiei behar bezala erantzuterik izan ez dutenean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek hainbat proiektu prestatu dituzte, non kurrikulu, antolaketa eta tutoretzako beharrezko aldaketak egin eta giza baliabideak ezarri baitira. Nolanahi ere, helburua da ikasleak gela arruntetan integratzea, beraz, ahal den heinean, neurri bereizleak baztertu behar dira. Proiektua definitzean, ikastetxeek profesional anitzez osaturiko ekipoaren laguntza dute eta, baimendu baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzak aztertuko du ia proiektuak benetako beharrizanei erantzuten dien eta eskola integratzailearen testuinguruan koherente den.

Berrikitan onetsi Atzerritartasun Legeak aintzatetsi duenez, atzerritar guztiek dute eskolatzeko eskubidea. Legezko manu horretatik abiatuz eta kulturarteko eskolaren markoan, ondokoa mahaigaineratu da: eskolako ikasleen eta helduen prestakuntza beharizanei begirako neurriak hobetzea.

#### **4.- Hobetzeko proposamenak.**

- 1) Gero eta kultur aniztasun handiagoko gizartean bizi gara. Eskolan aniztasun hori onartu eta ikasleak berdintasun, elkarrekintza eta gizarte eraldaketa printzipioetan oinarrituz heziko dira. Ikasleek kultura guztiak eta gureak ez diren kultur eredu

atxiki zaizkien pertsonak errespetatzen ikasiko dute eskolan, bereizkeriarik eta jarre-  
ra xenofoborik gabe, muga bakarra giza eskubideen errespetu unibertsala izanik.  
Kultura guztiak aintzatetsiko dira, ikaslea berak aukeratutako parametro kulturaletan  
hez dadin, gehiengoaren kulturak gutxiengoena bereganatu gabe. Aldi berean, esko-  
lak kulturen arteko lotura zubiak eskainiko ditu eta erraztasunak emango dizkie  
ikasle guztiei gizarteko esparru guztietan parte har dezaten.

- 2) Kulturarteko eskolak onartzen du kultur aniztasuna (hizkuntz aniztasuna, aniztasun  
etnikoa, erlijio aniztasuna...) eta eskola tratamendu integratua bilatzen du. Eskolak,  
bere antolaketa eta esku-hartze ereduetan, ahaleginak egiten ditu hautatutako auke-  
rak finkatzeko; aldi berean, elkarbizitza, trukea eta elkarrekintza bultzatzen ditu  
kultura desberdina dutenen artean.
- 3) Eskola leku aproposa da kultura desberdinak dituztenen arteko topagune eta elkarri-  
zketa gune izateko. Elkarriketa hori gauza dadin, kultura guztiek, baita gutxiengoek  
ere, finkaturik egon eta gizarte aintzatespena izan behar dute. Prest egon behar dugu  
beste kulturak ezagutzeko eta norbere kulturen beharrezko aldaketak egiteko, gure  
kulturak banakako nahiz taldekako garapena galga ez dezan.
- 4) Kulturarteko eskolak uste du ez dela egokia kultur kolektibo batzuetakoak eta bes-  
teetakoak bereizirik eskolatzea. Ahal izanez gero, eskolan hainbat kolektibo onartu  
eta behar-beharrezko ez diren jarrera bereizleak baztertu behar dira; eta, halako be-  
reizketak egitekotan ere, aldi batez soilik egingo dira. Gutxiengo etnikoentzako,  
etorkinentzako edo beste hizkuntza batzuetan ikasten dutenentzako eskola bereiziek  
ez diote hezkuntza eredu horri ekin.
- 5) Pobreak diren edo marginaturik dauden kultur gutxiengotako ikasleak hezkuntza  
ikastetxe jakin batzuetan metatzen dira, eskolaz kanpoko arrazoiak (batik bat hiri-  
gintza eta gizarte alorrekoak) direla-bide eta, horrela, saihestu nahi dugun fenome-  
noa ematen da: ikastetxe batzuk ikastetxe bereizi bihurtzen dira eta kultur gutxi-  
engotako ikasleak izaten dituzte gehienbat. Gauzak horrela, zaila da gizarte integra-  
zioaren aldeko kulturarteko eskola eratzea. Hezkuntza Administrazioak eta eskola  
agenteek fenomeno hori leuntzeko neurriak hartu eta egoera horretaz baliatzen diren  
jarrerak baztertu behar dituzte.
- 6) Bi hizkuntz ofizial dituzten erkidegoetan, eskolaren lehentasunetako bat da ikasle  
guztiek erkidegoko bi hizkuntzak ezagutzea. Talde, alderdi edo ideologiek ezingo  
dute hizkuntzetako bat bereganatu, beraz, ikasleak bi hizkuntzetatik edozeinetan  
komunikatu ahal izango dira. Eskolak erraztasunak emango dizkio ikasleari familian  
erabiltzen ez duen hizkuntz ofiziala ikas dezan. Helburu hori ez da bateraezina fa-  
miliek haurra eskolatzeko beste hizkuntza bat hautatzearekin; gisa berean, ez da ba-  
teraezina hezkuntz administrazioek hizkuntza errazago ikasteko proposatu eta  
bultzatuko dituzten ereduekin (hala nola, hizkuntza ikasteko murgiltze programak).
- 7) Hizkuntza ofizial bakarra (gaztelania) duten autonomi erkidegoek kultur aberasta-  
suntzat joko dute beste autonomi erkidegoetan gaztelaniaz bestelako hizkuntzak hitz  
egitea. Eskolari dagokio hizkuntza *minorizatuen* egoera ulertaraztea, hau da, hi-

zkuntza horiekiko bereizkeria positiboa komenigarri dela eta bereizkeria positibo horrek gaztelaniari erasotzen ez diola erakutsi behar du. Are gehiago, egoki izango litzateke autonomi erkidegoetako hizkuntzen zenbait ezaugarri irakastea, alegia, sustrai kulturalak, hizkuntzaren beraren ezarpena, literatura eta abar; bide horretatik, gehiago elkar ezagutu eta errespetatuko dugu.

- 8) Hainbat hizkuntza ikastean, ofizialak nahiz atzerrikoak, beste kultura batzuetara hurbiltzen gara. Hizkuntzak ikastean horien baliagarritasuna dugu helburu, baina horrezaz bestalde, hizkuntzei kultur dimentsioa eman behar zaie, ikasleen hezkuntza interkulturala bidera dezaten.
- 9) Ikastetxe guztiek, baina, batez ere, etorkin guneetakoek ikasle atzerritarak hartzeko programak prestatu behar dituzte, askotariko beharrezan aurre egiteko: hizkuntza, adina, aldez aurretik izan duten hezkuntza, kultur ereduak... Eskola sistemak bide eman behar die etorkinei gehiengoaren hizkuntza ikas dezaten. Nolanahi ere, hizkuntza ez da etorkinen beharrezan bakarria eta, sarritan, ezta lehentasunekoa ere.
- 10) Hezkuntza administrazioek etorkinei eta gutxiengo etnikoei begirako programak prestatu behar dituzte, betiere lurraldeko errealitatea aintzat hartuz. Beharrezan aztertzeaz gain, jarduera ildoak eta beharrezko baliabideak ezarriko dira. Administrazioek ikastetxeetan bultzatu nahi diren hezkuntzako esku-hartze ereduak edo orientazioak barnehartuko dituzte, eta baliabideak ezarriko dira, irakasleek ikasleen kultura eta bakoitzaren aprobetxamendu didaktikoko ereduak ezagutu dituzten; horrela, ikasleak bere kulturarekin identifikatu eta, aldi berean, beste kultura batzuetakoekin harremanetan jarriko dira. Programa horietan, aurrez ikusiko dira migrazio edota gizarte bazterkeriaren ondoriozko eskaerak; izan ere, migrazio edo bazterkeria horiek eragina izan dezakete eskola ikastetxeetan, nahiz eta zeharka izan.
- 11) Ikastetxeetako hezkuntza ekintzak aberasteko modu bat da esperientziak trukatzea antzeko arazo eta proiektuak dituztenen artean, hala bertako autonomi erkidegoekin, nola beste erkidego edo herrialde batzuetakoekin. Garrantzitsua da ikastetxeek hainbat testuingurutan izandako esperientziak jasotzea, hausnarketarako eredu izango baitira antzeko arazoak dituzten edo esku-hartzeko proiektuak hobetu nahi dituzten beste ikastetxe batzuentzat.
- 12) Eskolan informazio teknologiak erabiltzearen eta komunikatzearen helbururik garrantzitsuenetakoa da beste kultura eta pertsona batzuekin esperientziak trukatzea. Eskolari dagokio baliabide hauek aprobetxatzea, horrela, ikaslea hainbat iturritako informazioa egiaztatzen ohituko da eta beste leku batzuetako neska-mutuekin, hau da, bestelako bizimodu eta pentsamoldeak dituztenekin komunikatuko da. Bide horretatik, ikasleak jabetuko dira kultura antzeko mundu irekian bizi direla, mundu horretan euren kultura erlatibizaturik dagoela eta besteekiko tolerantzia eta jarrera irekia izan behar dutela.
- 13) Eskolari dagokio kulturak irakurketa eta informazioaren bidez garatzen direla irakastea. Herriek kultura anitzak dituztela eta hori aberasgarri dela ulertaraziko die ikasleei; era berean, adieraziko die desberdintasunak ez direla onargarri, hau da, ezin

onar daitekeela kultura batzuk menperatzaile izatea eta beste batzuk, berriz, menperatu, ezta kolektibo, herri edota pertsona batzuek kultur aberastasunerako baliabideak eskuragai izatea eta beste batzuek ez . Bestalde, komenigarri da eskolan giza eskubideen baliagarritasun unibertsala berrestea, horixe baita kultur aniztasunaren eta kulturen arteko harremanen muga bakarra.

**Bilbo, 2000ko martxoa**